
JAIAK93
Irailak 15161718 +19
EGIA
PORRONTXO

AGURRA

Udak berea egin du eta ɔerarekin batera, auzo zein ıerrietako Jai askok ere. Hala ere, raila hilabete aparta da 'estagirorako. Guk, Egiatarrok, ızken urte hauetan hamabi hain ;uzen ere, zoragarri pasa dugu eta ;spero dugu aurtengoan ere horrela ;ertatzea.

Porrontxo Jaiak oso ;zagunak egin dira ingurumari ıauetan eta ez pentsa handiki ıntolatu ditugulako izan denik, ezta ɔentsatu ere. Era xume eta apalean ıntolatzen saiatu gara beti. Hori ɔai, gure festak dira, guk ondo ɔasatzeko antolatuak, guztiok parte ıartzeko modukoak. Egunez, makina bat entretenigarri eta ikuskizun denon gozamenerako. Gauez berriz, gautxori eta parranda zaleentzako giro ezin ɔbea. Jendea pittin bat desmadratzen dela, eta zer?. Gehienok desmadratzen gara noiz edo noiz. Azken finean festak horrexetarako dira, kezkak eta nekeak alde batetara utzi eta, ordu edo egun batzutan gorputzari bixigarriren bat emateko.

Ez ezazu pentsa erraza izan zaigunik aurtengo egitaraua prestatzea gero eta zailagoa gertatzen da Jai orekatu batzuk antolatzea. Gainera, aurtengoan ez dugu Plaza Haundi erabiltzerik izango, eskerrak noizbait auzotarren gogoak eta aldarrikapenak kontutan izan dituzten murrizketekin besterik ez bada ere.

Gure partetik besterik ez. Bizitza osoan gogoratuko dituzun Porrontxo Jaiak pasa ditzazula gurekin izango ez ditugun: Armando Legaz, Mikel Aznar, Jesús Mari Aranguren, Joxean Agirre, José Mari Dorronsoro eta beste hainbat gogoratuz eta giro jatorra nagusi dadila.

PORRONTXO
JAIAK
93
IRAILAK
15-16-17-18-19
EGIA

EZ DUGU PILARIK JATEN

PORRONTXO
EGIA 93

Koadriletako Asanbladak errebeindikazio hauekin bat egiten du portaera hauen desagerketa bultzatuz eta honekin batera beraien salaketak kaleratuz.

Jaietako egun hauetan, deskontrolak, janak eta edariak betetzen gaituen egun hauetan, kalea piropo eta irainentzako tokirik aproposena bilakatzen da; bultzada baten aitzakiz, zu beste toki batetara begiratzen ari zarela, esku bat zure gainean nabaritzea arraroa ez delarik. Noski ¡ etxera itzultzerakoan beste zerbait gehiago topa dezakezu.

Jaiak ere gureak dira, bai prestatzeko bai horietan parte hartzeko. Horregaik kalea errebeindikatzen dugu, emakumeak jasaten ditugun erasoak salatuz eta piropo, iraina, eskua sartzeko aitzaki gisa erabil ohi dituzten jaiei, ezetz esanez.

ERASOAK SALA ITZAZU, DENON ARAZOA BAIT DIRA !!

OHARRA: Jaietan auzokideak animatzen ditugu terrazak apain ditzaten, ikurrina, kolorezko globoekin edo nahi duten bezala.

NOTA: Animamos a los vecinos a que colaboren en fiestas ADORNANDO las terrazas con la ikurriña, con globos de colores o como mejor se les ocurra.

AIZU ¡ JAIAK ONDO PASA !

ALKOHOLAK ETA TABAKOAK EZ ZAITZATELA BEREGANATU

BERE ERABILPENA ZURE ESKU DAGO

Azken oharra: antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.

Nota: La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

"PORRONTXO JAIAK" ABESTIA

Neska mutilak haurrak eta helduak
danok pozez kuadriletan
gora Porrontxo, aupa atorrantiak
gozatu gure jaietan.

Urtero ospatzen ditugu jai zoragarriak
gure lanaz auzora pozez erakutsiak
kuadrila guztien artean erabakiak
horregatik diogu direla guriak.

Giro herrikoia dago gaur gure auzoan
amnistiaren ametsa beti dugu buruan
ikurrina jarrita dago gure etxean
danok pozez salto ta dantza kalean.

Festa Batzordeak eskerrak ematen dizkie Porrontxo jai hauen egitaraua egiten lagundu duten dendari eta auzokide guztiei

La Comisión de Fiestas agradece a los vecinos y comerciantes del barrio que con su ayuda han colaborado en la realización de este programa de fiestas

DATORREN URTEKO EGITARAUAN IRAGARKI BAT JARTZEA NAHI BADUZU, ARRANO ELKARTEAN JAI BATZORDERA DEITU DEZAKEZU.

SI QUIERES ANUNCIARTE EN ESTE PROGRAMA EL AÑO QUE VIENE PUEDES AVISAR A LA COMISION DE FIESTAS EN LA SOCIEDAD ARRANO.

Donostiako Udala

EZ APARKATU NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen:

NOTA: Se solicita la colaboración de los vecinos-as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

PLAZA BERRI ALDEA: (Karmengo Ama eta Ur-zaleak pasabidea). Dantzaldiak eta jai ekintzak plaza honetan egingo direnez jendea ugari izango bait da.

ZONA DE PLAZA BERRI: (Virgen del Carmen, Pasaje de UR-ZALEAK) ya que las verbenas y actos festivos se realizarán en dicha plaza con la consiguiente aglomeración.

TEJERIAK: Ostirala arratsaldetik igande goiza arte (kuadrilen afaria).
A partir del viernes a la tarde hasta el domingo a la mañana (cena de cuadrillas)

KARMENGO AMA ETA TEJERIAREN ARTEKO KALEA:(OSTOTSA TABERNA) Larunbaten(kuadrilen jolasak)
El sábado juegos de cuadrillas

TEJERIA ETA KARMENGO AMAK: Ostirala arratsaldean bigarren lerroan (kronoeskalada) - Viernes a la tarde en doble fila (cronoescalada)

BAR LA ESTRELLA

Egia, 4 - **DONOSTIA** - Tel. **28 52 19**

Porrontxoetan ondo pasa

Ana

GOXO - JANARIDENDA

Virgen del Carmen, 32
Tel. **27 22 58**
DONOSTIA



OSTOTSA
TABERNA

GURE ALDETIK JAI ZORIONTSUAK
OPARITZEN DIZKIZUEGU

Virgen del Carmen, 15 Tel.: 29 07 97

EGITARAUA

ASTEAZKENA 15

19etan: Buruhaundi eta Erraldoiak Tirri Tarra txarangarekin.
20etan: Suziri, Pregoia eta Porrontxoaren jeitsierarekin jaien hasiera.
20etan: Kuadrilen jeitsiera Tirri-Tarra eta Txalupa txarangekin.
23etan: Dantzaldia Trakets taldearekin.
23.30etan: Mozoloak txaranga.
1ean: Korroskada txapelketa.

OSTEGUNA 16

8.30etan: Diana.Oreretako dultzainariekin eta bonboekin.
12.30etan: Oreretako dultzainariak.
17.30etan: Buruhaundi eta Erraldoiak Izengabeak txarangarekin.
18etan: Haur kuadrilen jeitsiera Izengabeak txarangarekin.
19.30etan: Jatorrenak txaranga.
19.30etan: Plaza Berrin Haur Dantzaldia Zuentzat taldearekin.
20etan: Koadrilentzako jokoak: zaku lasterketa, ping-pong, mus.
21etan: Mozoloak txaranga.
24etan: Dantzaldia Sonora Caribe taldearekin.
24.30etan: Txalupa txaranga.
1ean: Banana-Dantza eta Txiste Kontaketa.
2etan: Plaza Gorrin, Burkoen jokua piszinan.

OSTIRALA 17

12etan: Goloka Haur Antzerkia, Plaza Berrin.
12.30etan: Alkorta Anai-Arreba Trikitilariak.
16.30etan: Haur Jokoak, Antxeta Plazan.
18.30etan: Buruhaundi eta Erraldoiak Txalupa txarangarekin.
19.30etan: Kronoeskalada, Karmengo Ama kalean gora.
20etan: Koadrilentzako jokoak: sketx.
21etan: Kantaldia: Javier Sun.
22etan: Mozoloak txaranga.
23etan: Auzoko txistularien kalejira.
24etan: Dantzaldia Iratxoak taldearekin.
1ean: Jatorrenak txaranga.
2etan: Aparraren jokoa, Plaza Gorrin.
4etan: Mozoloak txaranga.

LARUNBATA 18: PRESO, DEPORTATU ETA ERREFUXIATUEN EGUNA

7etan: Diana Oreretako dultzainariekin.
8.30etan: Batelen lasterketa Urumean.
11etan: Txokolatada, haurrentzako jokoak eta Sebastopoleko Titiriteroak Gladysenean.
11.30etan: Erraldoien Bilkura, Oreretako dultzainariekin eta Katatrak Trup Malabaristekin, Egian zehar.
12.30etan: Kale antzerkia Trapu Zaharrak taldearekin.
16etan: Jatorrenak txaranga.
16etan: Koadrilentzako jokoak: Olinpiadak, goitiberak eta arraultz jokoa.
19.30etan: Mozoloak txaranga.
19.30etan: Bertso Paper lehiaketa: Intsumisioa.
Antzerki saioa, Tunantes del Norte taldearekin.
20.30etan: Egia kalean (Kutxan) Senideak antolatutako enkartelada.
21.30etan: Kuadrilen afaria, Tejeria kalean, Sunbilako trikitilariekin.
22.30etan: Jokoa: flan jate txapelketa, Tejerian.
24etan: Amnistiaren aldeko kalejira, ondoren senideei omenalditxoa.
1ean: Dantzaldia Izan taldearekin.
1.30etan: Zubietako ttuntturroak.
3etan: Txalupa txaranga.
5etan: Txokolate jana, Arranoko kalestuan.

IGANDEA 19

6.30etan: Diana Oreretako dultzainariekin.
9etan: Jatorrenak txaranga.
9.30etan: Aitor Ikastolako txistulariak.
9.30etan: Baltsen jeitsiera, Urumean.
11etan: Pilota txapelketaren finalak Atotxako frontoian.
12etan: Jotak: Aires Navarros taldearekin.
13.30etan: Sagardo dastaketa, Alkorta Anai Arreba trikitilariekin eta Juan Mari Irazu, Ion Garmendia eta Unai Agirre Bertsolariekin.
14.30etan: Bazkari herrikoia: zikiroa.
16.30etan: ERROMERIA.
Jokuak: Herri kirolak, Fandango, Arin-Arin; Irrintzi txapelketa.
Trebeskako dantzariak.
Herri kirolak: Harrijasotzailea: Mikel Saralegi.
Haizkolariak: Nartxi eta Gabriel Saralegi.
Alkorta Anai Arreba Trikitilariak.
Irazu, Garmendia eta Agirre Bertsolariak.
20etan: Musika. Imuntzo eta Beloki.
21.30etan: Kuadrilen kalejira Txalupa txarangarekin.
22.30etan: Azken traka, Porrontxoaren erreketa eta Jaien Amaiera.

Udaletxea!

Plaza Haundi, Polikiroldegia, Pasadizoa, Auzoetxea...NOIZ?

EGIAREKIN BETI GEZURRETAN

Egiako Elkarteen Kordinakundea

GAZTEOK GURE AKTIBITATEAK EKITEKO BEHAR DEN BEZALAKO LOKAL BAT BEHAR DUGU!!

EGIAKO GAZTEEN ASANBLADA

- AUTOGESTIONATUTA!
- AUTOFINANZATUTA!